

(Bana hitzarmen egin behar da ikasleko: enpresak, unibertsitateak eta ikasleak sinatuta)

**LANKIDETZA HITZARMENA, UPV/EHUren _____
IKASTEGIAREN, _____ ERAKUNDEAREN ETA
_____ IKASLE LANGILEAREN ARTEAN HEZKUNTZA
DUALERAKO PROGRAMA BAT GARATZEKO**

_____ (e)n, 20__eko _____ aren ____ (e)an.

_____ jaunak / andreak, _____
ikastegi arduraduneko _____ izanik,

_____ jaunak / andreak, (erakundea)
_____ ko (kargua) _____ eta I.F.Z. _____
izanik,

Eta (ikasle langilea) _____ jaunak / andreak,
_____ gradu edo masterrean matrikulatuta eta N.A.N.
zenbakia _____ duenak,

ADIERAZI DUTE:

Prestakuntza dualaren bidez, enpresak lankidetzan jardunen duela ikaslearen hezkuntza ibilbidean, berori amaitzerakoan tituludun eraginkorra lortuko delarik, enpresaren premia eta beharrei erantzuteko gai.

Honen erdiesteko, aldeek zehaztu behar dituzte prestakuntza dualak izango dituen baldintzak, beti ere, ikaslearen heziketa integrala helburu harturik eta, honetarako, jarri beharreko neurriak jarriko dira bai jarduera akademikoa nola lan jarduera bateragarriak izan daitezen hala edukiari nola ordutegiari dagokionean. Halaber, ikasleak egindako jarduerari behar bezalako jarraipena egin dakion, ikaslearen beraren, fakultatearen eta erakundearen inplikazioa da beharrezko.

Arestiko ondorioak lortzeko, aldeek honako klausula hauek hartu dituzte:

KLAUSULAK

1. HELBURUA:

Honako hitzarmen honek aldeetako bakoitzaren konpromisoak zehaztea du helburu, UPV/EHUko ikasle langileak erakundean prestakuntza dualerako programa buru dezan.

2. ERAKUNDEKO EGONALDIAREN BALDINTZAK

1.- Ikasle langilearen eta erakundearen arteko harremana lan eremuaren barruan lan kontratu bat formalizaturik gauzatuko da, kontratuaren helburua izanik *"enpresa eta unibertsitatearen arteko prestakuntza DUAL batean parte hartzea, enpresaren egiazko beharretara egokitutako esperientzia praktikoa bereganatu ahal izateko eginkizunetan arituta"*.

Ikasle langilearen eta enpresaren arteko lan harreman dual hau, gainerako langileenak bezala, langileen estatutuaren, enpresari aplikatu dakioken hitzarmen kolektiboaren eta gainontzeko lege xedapenen menpe dago.

2.- Jarduera _____(e)n burutuko da. (kokapena, lurraldea, udalerrria).

3.- Honako hau izango da egonaldiaren iraupena (*zehaztu ahal balitz*) eta ordu arduraldia:

4.- Enpresak konpromisoa hartzen du ikasle langilea lanetik irten dadin etsaminak egitera, alde biek adostuko dituzten baldintzetan.

5.- Enpresak konpromisoa hartzen du, ahal den heinean, bestelako eginetara irteten uzteko, arrazoi akademikoek behar bezala justifikatuz gero.

6.- Egonaldiaren gainerako baldintzak ikasle langilearen eta enpresaren arteko enplegu harremanak erakarritakoak izango dira.

Lan harreman hau bateragarria izango da kasu guztietan oro, ikasle langileak fakultatean egin beharreko prestakuntza akademikoarekin.

7.- Ikasle langilearen eta UPV/EHUren arteko harremana akademikoa da eskusiboki, harreman horren ondorioz lan harremanei legozkiokeen eskubide eta betebeharretatik bat ere erator litekeelarik.

Lan kontratua deuseztatuko balitz ikasle langileari ez legokiokeen arrazoiarengatik, unibertsitateak hartu beharreko neurriak hartuko ditu egiten ari den graduako titulua lortzeko behar dituen hautazko kredituak gainditzeko aukera izan dezala bermatzeko.

8.- Jarduerak egiteko edo eguneroko zereginetan erabiliko den hizkuntza _____ izango da.

3. PRESTAKUNTZA DUALERAKO PROGRAMAREN EDUKIA

1.- Unibertsitatea-Enpresa prestakuntza dualaren ibilbidearen bidez ikasle langilearen gaitasun garapena lortu nahi da, profil profesionalarekin bat etorrira eta inguruko enpresen beharretarako egokituta. Hau da, profesionalizazioa eta ingurune sozio-ekonomiko batean txertatzea da prestakuntza dualaren bidez erdietsi nahi diren emaitzak.

Zehazkiago, Unibertsitatea-Enpresa prestakuntza dualaren ibilbideak aukera emango du titulazioaren gaitasunak garatzeko, ikasle langileak eginen lituzkeen eginkizunen arabera.

2.- Eskuratu beharreko gaitasunak eta egin beharreko jarduera edo eginkizunak hezkuntza proiektuan (I. eranskina) edo jarduera planean (II. eranskina) zehaztuko dira, prestakuntza dualerako ikasketa planeko irakasgai edo gai bakoitzaren hasieran.

3.- Erakunde lankideak bermatuko du behar diren instalazio eta bitartekoak dituela, gaitasunak prestakuntza dualerako programan aurreikusitako mailan garatu ahal izateko, eta zehaztuko du bertan har ditzakeen ikasle langileen gehieneko kopurua.

4. PRESTAKUNTZA DUALERAKO PROGRAMAKO BATZORDE MISTOA

1.- Batzorde misto bat osatuko da unibertsitate eta erakundearen ordezkariekin, osaera parekidea duela. Batzorde honek izendatuko du bere kideen artean batzordeburua.

2.- Batzorde mistoak, gutxien dela, bilera bat egingo du urtean eta akta egingo du bilera guztietan.

3.- Batzorde honek eginkizunok izango ditu:

- a) Erakundearen garatu eta ikasgelan irakatsitako jardueren koordinazio, integrazio eta gainbegiratzeko mekanismoak ezarri.
- b) Prestakuntza dualerako programaren garapenean antzemandako adierazle, gorabehera eta ebidentziak analizatu.
- c) Ikasle langilearen jarraipena bermatu, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.
- d) Hitzarmenaren kontrol eta jarraipena egin eta jarduerak garatzerakoan sor daitezkeen interpretazio eta burutze gorabeherak ebatzi.

5. PRESTAKUNTZA DUALEKO TUTORE AKADEMIKOA UNIBERTSITATEAN

UPV/EHUren fakultateak edo eskolak, gutxienez, tutore akademiko bat izendatuko du, prestakuntza eta profil egokiduna.

Honako hauek izango dira tutore akademikoaren eskubideak:

- a) Berak egindako jarduera akademikoa egiazki aitortua izateko, unibertsitateak ezarritako baldintzetan.
- b) Titulazioaren ardura duen ikastegiak prestakuntza dualerako programari buruzko informazioa jasotzeko, bai eta ikasle langileak erakundearen burutuko dituen lanaren baldintzei buruzkoa ere.
- c) Erakundearen sarrera izateko eskubidea, bere eginkizunak bete ahal izateko.

Halaber, funtzio hauek izango ditu:

- a) Prestakuntza proiektua egoki eta zuzen garatzen dela bermatu.
- b) Prestakuntza proiektuaren egiazko jarraipena egin erakundearen, horretarako erakundeko tutorearekin koordinatuta.

- c) Hezkuntza proiektuaren ebaluazio prozesua burutu erakundearen, behin erakundeko tutorearen azken txostena jaso eta gero.
- d) Gradu edo master amaierako laneko zuzendarikide izan, hala balegokio.
- e) Tutore gisa egindako jardueraren bidez eskuratutako edozein informazio isilpean gorde.
- f) Batzorde mistoari jakinarazi, hezkuntza proiektuaren garapenean gertatutako gorabeheren berri.

Tutore akademikoak, hala beharko balitz, prestakuntza jasoko du erakundearen garatuko den prestakuntza dualaren ereduari buruz, unibertsitateak edo titulazioaren ardura duen ikastegiak xede honetarako antolatuko lituzkeen formakuntza ikastaro edo jardunaldien bidez.

6. PRESTAKUNTZA DUALERAKO TUTOREA ERAKUNDEAN

Enpresak, gutxien dela, prestakuntza dualerako tutore bat izendatuko du, titulazioaren ardura duen ikastegiak ere ontzat eman beharko duena, bai eta venia docendi aitortu ere, ikasleen kanpoko praktika akademikoan arautzeko UPV/EHUren arautegian (III. eranskina) adierazitako prozeduraz baliatuta.

Erakundeko tutorea erakundearen loturiko pertsona bat izango da, tutoretza eraginkor bat egiteko eta lan esperientzia eta behar diren jakintzak izango ditu. Instruktoarea eta unibertsitateko tutorea ezin dira pertsona bera izan.

Tutoreak, hala beharko balitz, prestakuntza jasoko du erakundearen garatuko den prestakuntza dualaren ereduari buruz, unibertsitateak edo titulazioaren ardura duen ikastegiak xede honetarako antolatuko lituzkeen formakuntza ikastaro edo jardunaldien bidez.

Erakundeko tutoreak eskubide hauek izango ditu:

- a. Lankidetzan jarduna titulazioaren ardura duen ikastegiak aitortua izateko, alde aurretik eskatuta.

- b. Unibertsitatara sartzeko modua izatea, bere zereginetarako behar dituen euskarriak eta informazioa eskuratzeko.

Halaber, funtzio hauek izango ditu:

- a. Ikasle langileei harrera egin eta egin beharreko jarduerak antolatu, prestakuntza proiektuaren arabera.
- b. Ikasle langilearen jarduerak gainbegiratu, hezkuntza proiektua bideratu eta kontrolatu, elkarrenganako errespetua eta ikasteko konpromisoa oinarri izanik.
- c. Erakundearen funtzionamenduaren eta intereseko arauen berri ematea ikasle langileei, batez ere segurtasunari eta laneko arriskuei dagokienez.
- d. Koordinazioa mantenduko du unibertsitateko tutorearekin hitzarmenean ezarritako jarduerak aurrera eramateko, eta prestakuntza proiektuan beharrezko gerta daitezkeen moldaketak batzorde mistoari proposatzeko. Halaber, tutorea jakinaren gainean jarriko du prestakuntzan zehar sor litezkeen gorabeheren inguruan eta hauei jarritako konponbidearen berri, bai eta ikasle langileei etsamintetara joateko baimenak eman ere.
- e. Ikasle langilearen hezkuntza proiektuaren garapenari buruzko azken txostena egin, ebaluatua izan dadin.
- f. Ikasle langileari eman prestakuntza proiektua burutzeko behar dituen ezinbesteko baliabide materialak.
- g. Erraztasunak eman eta bultzatu egingo du ikasle langilea, berrikuntza, hobekuntza eta ekimen proposamenak egin ditzan.
- h. UPV/EHUko tutoreari erakundera sartzeko bidea eman, bere zereginei lotutako helburuak bete ditzan.
- i. Erakundeko tutore gisa egindako lanaren bidez ikasle langileari buruzko informazioa eskuratzen badu, isilpean gorde.

- j. Erakundearen dagoen bitartean ikasle langileei laguntza eta sostengu profesionala ematea praktiketako zereginak betetzean.

7. GRADU EDO MASTER AMAIERAKO LANA ZUZENTZEA

Gradu edo master amaierako laneko zuzendari kide izango da prestakuntza dualerako programan diharduen erakunde lankideko kide bat, titulazioaren ardura duen ikastegiak izendatuko duena, erakundearekin berarekin adostuta.

1. Gradu ikasketen kasuan, beste zuzendari kide izan beharko du graduaren irakaskuntza duen sail batean edo gradua irakasten duen ikastegiari atxikitako irakasle bat.
2. Masterreko ikasketen kasuan, zuzendari ez doktore balitz, masterreko irakasle doktore bat beharko du zuzendari kide.
3. Zuzendari kide izanez gero, zuzendari kide biak elkar koordinaturik egongo dira lana garatu ahal izateko, jarduerak hasi baino lehen eta ikasketa amaierako lana egiteko irakaskuntza gidak ezarriko duen edukira egokituta.
4. Lanetan jorratu beharreko gaiak esleitzeko eta lan hauek zer hizkuntzatan egin eta defendatuko diren, ikastegiak egingo du erakunde lankidearekin ados jarrita.
5. Gradu edo master amaierako laneko zuzendari edo zuzendari kideari, hala beharko balitz, UPV/EHUko zuzendari kidearekin koordinatuta, eginkizun hauek dagozkie:
 - ✓ Ikasle langileari lanaren ezaugarriak azaldu.
 - ✓ Lana egiterakoan ikasle langilea orientatu.
 - ✓ Ezarritako helburuak betetzen direla zaindu.
 - ✓ Jarraipena eta defentsaren aurreko idatzizko txostena egin, gero hura ikasle langileari emateko.
6. Fakultateak aitortuko du GRAL edo MALeko zuzendariak egindako jardun akademikoa.

8. IKASLE LANGILEAREN KONPROMISOAK

_____ ikasle langileak bere egiten du hitzarmen honek eragiten dizkien konpromisoak eta hauek burutzea eta une guztietan oro agertuko du ardura eta erantzukizun maila altua, bai enpresan nola prestakuntza dualerako programan. Besteak beste, hauexek dira konpromiso horiek:

A) Enpresan:

_____ ikasle langileak konpromisoa hartzen du enpresaren barne arautegia eta erregelamendu orokorreko segurtasun arauak errespetatzeko, bai eta enpresaren beraren neurriak ere. Halaber, konpromisoa hartzen du aginduko zaizkion zereginak egiteko.

Jakin badaki eta onartzen du ezen arestikoa edo bere kontratuak eragindako beste edozein arau bete ezean, enpresarekiko lan harremana bertan behera geratzea lekarkeela, besteak beste.

B) Prestakuntza dualerako programan:

Ikasle langileak konpromisoa hartzen du UPV/EHUko ikasle langile izateak lekarzkiekeen betebeharrak betetzeko, unibertsitatearen araubidean jasotzen diren baldintzetan eta ondorioekin.

9. IKASKETA AMAIERAKO LANEN JABETZA INTELEKTUAL ETA INDUSTRIALERAKO ESKUBIDEAK

Gradu edo master amaierako lana jabetza intelektualari buruzko legearen babespean dago eta ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideak lan hori egin dituen ikasle langilearenak izango dira, baldin eta hark ez badu lagapenik edo eskualdatzerik sinatu, indarreko legediak ezarritako baldintzen arabera. Halakorik egonez gero, hitzarmen honetako eranskineko dokumentuan berariaz jaso beharko da eta ikasle langileak onartu egin beharko du.

10. HITZARMENA INTERPRETATZEKO ARAUBIDEA

Hitzarmen hau administratiboa da, eta, hortaz, antolamendu juridiko administratiboa aplikatu beharko da bera interpretatu eta garatzeko.

Hitzarmen honek edo bera betetzeak sor ditzakeen arazoak hitzarmen honetako laugarren klausulan aipatutako jarraipen mistoak ebatziko ditu.

11. INDARRALDIA

Hitzarmena baliorik gabe uztea eragin lezakeen zuzenbideko edozein zio indarrean delarik, hitzarmena indarrean egongo da _____ ikasle langilearen prestakuntza dualerako programak dirauen bitartean.

_____(e)n, _____.eko _____aren ____ (e)an

UPV/EHUren
IKASTE GIAREN
ALDETIK

ERAKUNDEAREN
ALDETIK

IKASLE LANGILEA

Sinadura

Sinadura

Sinadura

Kargua: _____

Kargua: _____

_____ jauna /
andrea _____

_____ jauna /
andrea _____

_____ jauna /
andrea _____

Data: _____

Data: _____

Data: _____

I. ERANSKINA

20..../20.... IKASTURTEA

PRESTAKUNTZA DUALERAKO PROGRAMAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

(Erakundearen prestakuntza txandakatuan egingo diren irakasgaiak beste proiektu bete beharko dira, ikasturteka ordenaturik)

1. Tituluaren ardura duen ikastegia

2. Prestakuntza dualerako programari dagokion titulazioa

3. Ikasle langile izanik, prestakuntza dualerako programan hartzen du parte:

_____ **jauna/andrea** (prestakuntza dualerako programan parte hartzen duen ikasle langilearen izen-deiturak)

4. Praktikak, lanak edo proiektuak zein erakundetan eta zein lekutan egingo diren.

5. Prestakuntza dualerako programako irakasgaia (izena)

6. UPV/EHUren prestakuntza dualerako tutore akademikoa izanik,

_____ **jauna / andrea** (tutore akademikoaren izen-deiturak)

7. Erakundearen prestakuntza dualerako tutorea izanik,

_____ **jauna / andrea** (erakundeko tutore akademikoaren izen-deiturak)

8. Ikaslearen egutegia erakundearen: _____(e)tik _____(e)ra (uu/hh/ee)

9. Ikasle langilearen ordutegia erakundearen:

10. Ikasle langileak erakundearen izango duen arduraldia: (orduak, guztira)

11. Erakundearen tutorearen arduraldia: (orduak, guztira)

12. Prestakuntza programaren hezkuntza helburuak:

Ikasle langileak erakundearen jasoko duen gaitasunak:
1.-
2.-
3.-
(....)

13. Erakundearen burutu beharreko jarduerak edo zereginen deskribapena:

1.-
2.-
3.-
(....)

14. Hezkuntza proiektua erakundeak zer hizkuntzatan garatuko den:

- Euskara
- Gaztelania
- Ingelesa
- Frantsesa
- Besterik (adierazi hizkuntza):

15. Ikasle langileak jasoko beharreko hileko zenbatekoa:

20___/20__(e)ko ikasturtean _____ euro izango dira hilean.

Erakundearen egin beharreko atxikipena egin beharko du PFEZren ondorioetarako, bai eta legeak ezarritako bestelako atxikipenak ere. Era berean, bete beharko ditu indarreko legeriak gizarte segurantzaren erregimen orokorrean afiliatu eta kotizatzeke ezarritako betebeharrak.

16. Ikasle langilearen datuen babesa.

Erakundearen prestakuntza dualerako jarduerak garatzen dituen ikaslearen datuak, hitzarmen honen helburuetarako baino ez dira erabiliko.

17. Konfidentzialtasuna.

Ikasle langileak konpromisoa hartzen du erakunde lankidearen barne informazioa eta haren jardunaren sekretu profesionala isilean gordetzeko, bai egonaldian zehar eta bai gero. Salbuespenetzko egoeretan, hala balegokie, ikastegiak edo masterreko batzorde akademikoak zehaztuko lituzketenetan, konfidentzialtasuna gorde eta bermatzeko,

titulazioaren ardura duen ikastegiek eskatu ahal izango dio ikasle langileari sinatu beharreko dokumentuak sina ditzala.

18. Ikasle langileak adierazi du:

- Ezen ezagutzen dituela UPV/EHUren eta erakunde lankidearen arteko prestakuntza dualerako programa garatzeko lankidetzaz hitzarmenaren baldintzak, prestakuntza dualean gradu edo master amaierako lana egiteari dagokionean.
- Ezen ikasle langileak konpromisoa hartzen duela aipatutako hitzarmenak eta aplikatu beharreko arautegiak ezarritako betebeharrak betetzeko.
- Ezen ikasleak baimena ematen diela UPV/EHUri eta erakunde lankideari bere datuak l. eranskin honen hamaseigarren klausulak ezarritako moduan eman eta erabili daitezzen.

IKASTE GIAREN ALDETIK
UPV/EHUko PRESTAKUNTZA
DUALERAKO TUTOREA

Sinadura

ERAKUNDEAREN ALDETIK
ERAKUNDEko
PRESTAKUNTZA
DUALERAKO TUTOREA

Sinadura

IKASLE LANGILEA

Sinadura

Kargua: _____

Kargua: _____

_____ jauna / andrea

_____ jauna / andrea

_____ jauna / andrea

Data: _____

Data: _____

Data: _____

II. ERANSKINA

20__/20__ IKASTURTEA

GRADU edo MASTER AMAIERAKO LANA GARATZEKO ETA ZUZENDARITZAKO JARDUERA PLANA

(lana garatzen hasi deneko ikasturteari dagokio)

1. Tituluaren ardura duen ikastegia

2.

3. Prestakuntza dualerako programari dagokion titulazioa

4. Ikasle langile izanik, prestakuntza dualerako programan hartzen du parte:

_____ **jauna/andrea** (prestakuntza dualerako programan parte hartzen duen ikasle langilearen izen-deiturak)

5. Gradu edo master amaiera lana zein erakundetan eta zein lekutan egingo den.

6. Gradu amaierako lanaren edo master amaierako lanaren izena

7. Gradu edo master amaierako lanaren erakundeko zuzendari kidea

8. Gradu edo master amaierako lanaren UPV/EHUko zuzendari kidea

9. Jarduerak _____(e)tik _____(e)ra (uu/hh/ee) bitartean hasiko dira.

10. Ikasle langilearen ordutegia erakundean:

11. Erakundeko zuzendari kidearen arduraldia: (orduak, guztira)

12. Gradu edo master amaiera lana zein hizkuntzatan egingo den:

Euskara
Gaztelania
Ingelesa
Frantsesa
Besterik (adierazi hizkuntza):

13. Ikasle langileak jaso beharreko hileko zenbatekoa:

20___/20__(e)ko ikasturtean _____ euro izango dira hilean.

Erakundean egin beharreko atxikipena egin beharko du PFEZren ondorioetarako, bai eta legeak ezarritako bestelako atxikipenak ere. Era berean, bete beharko ditu indarreko legeriak gizarte segurantzaren erregimen orokorrean afiliatu eta kotizatzeke ezarritako betebeharrak.

14. Ikasle langilearen datuen babesia.

Erakundean prestakuntza dualerako jarduerak garatzen dituen ikasle langilearen datuak, hitzarmen honen helburuetarako baino ez dira erabiliko.

15. Jabetza intelektual edo industrialia:

Gradu edo master amaierako lana jabetza intelektualari buruzko legearen babespean dago eta ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideak lan hori egin dituen ikaslearenak izango dira, baldin eta hark ez badu lagapenik edo eskualdatzerik sinatu, indarreko legediak ezarritako baldintzen arabera. Halakorik egonez gero, hitzarmen honetako eranskineko dokumentuan berariaz jaso beharko da eta ikasleak onartu egin beharko du, unibertsitateak xede honetarako onartuko lukeen agiria sinatuta.

16. Konfidentzialtasuna.

Ikasle langileak konpromisoa hartzen du erakunde lankidearen barne informazioa eta haren jardunaren sekretu profesionala isilean gordetzeko, bai egonaldian zehar eta bai gero. Salbuespenezko egoeretan, hala balegokie, ikastegiak edo masterreko batzorde akademikoak zehaztuko lituzketenetan, konfidentzialtasuna gorde eta bermatzeko, titulazioaren ardura duen ikastegiak eskatu ahal izango dio ikasle langileari sinatu beharreko dokumentuak sina ditzala.

17. Ikasle langileak adierazi du:

- Ezen ezagutzen dituela UPV/EHuren eta erakunde lankidearen arteko prestakuntza dualerako programa garatzeko lankidetza hitzarmenaren baldintzak, prestakuntza dualean gradu edo master amaierako lana egiteari dagokionean.
- Ezen ikasle langileak konpromisoa hartzen duela aipatutako hitzarmenak eta aplikatu beharreko arautegiak ezarritako betebeharrak betetzeko.
- Ezen ikasleak baimena ematen diela UPV/EHUri eta erakunde lankideari bere datuak II. eranskin honen hamahirugarren klausulak ezarritako moduan eman eta erabili daitezen.

IKASTEGIAREN ALDETIK
MASTER AMAIERAKO
LANAREN UPV/EHUko
ZUZENDARI KIDEA:

Sinadura

ERAKUNDEAREN ALDETIK
MASTER AMAIERAKO
LANAREN ERAKUNDEko
ZUZENDARI KIDEA:

Sinadura

IKASLE LANGILEA

Sinadura

Kargua: _____

_____ jauna / andrea

Data: -----

Kargua: _____

_____ jauna / andrea

Data: _____

_____ jauna / andrea

Data: _____

III. ERANSKINA

"VENIA DOCENDI" ETA LANKIDETZA-JARDUERAREN AITORTZA

I.- DATU OROKORRAK

Erakundeko tutorearen izen-deiturak:	
Erakunde lankidea:	
Ikasturtea	

_____ jaunak / andreak, Arabako Campuseko errektoreordea izanik, *Venia Docendia* aitortzen dio _____ jaunari / andreari, erakundeko tutore gisa aritu baita ondoren aipatzen diren ikasleen prestakuntza dualerako hezkuntza proiektuetan:

IKASLE LANGILEA	IRAKASGAIAREN ETA TITULAZIOAREN IZENA
1.	
2.	
(...)	

Data era errektoreordearen sinadura

_____ (e)n, 20__eko _____ aren ____ (e)an.

ERREKTOREORDEA

(Sinadura)

IV. ERANSKINA

JABETZA INTELEKTUAL ETA INDUSTRIALAREN ESKUBIDEAK LAGATZEKO ETA ESKUALDATZEKO EREDU ORIENTAGARRIA

(prestakuntza dualean diharduten erakundeak beste agiri sinatu behar dira)

I.- DATU OROKORRAK

Erakunde lankidea:	
Ikasle langilearen izen-deiturak	
Ikasle langilearen N.A.N. zenbakia	
Ikasle langilearen titulazioa	

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ aren _____ (e)an.

Alde batetik, _____ jaunak/andreak, _____ NAN zenbakia duenak, UPV/EHUko ikasle langileak

Beste alde batetik, _____ jaunak/andreak, erakunde lankidearen ordezkari

ADIERAZI DUTE:

- 1.- Ezen _____ (ikasle langilearen izen-deiturak) _____ ikasle langileak prestakuntza dualerako programa egingo duela erakunde lankidean.
- 2.- Baliteke prestakuntza dualerako programaren ondorioz sortzea ordenagailu programa/datu base/ asmakuntza patentagarri bat edo ekonomikoki ustiatzeko izan litekeen bestelako emaitza mota bat.
- 3.- Ezen ezagutzen dituela UPV/EHUren eta, datu orokorren atalean adierazitako erakunde lankidearen arteko prestakuntza dualerako programa garatzeko lankidetzaren hitzarmenaren baldintzak, berorri legokiokeen guztian.

ERABAKI DUTE



Lehenengoa. - Ezen _____ (ikasle langilearen izen-deiturak) _____ ikasleak uzten dizkio _____ erakunde lankideari, bai eta honek onartu, bigarren adierazitakoan aurreikusi diren emaitzen ustiaketa eskubidea, denbora mugarik gabe eta edozein lurralde eremutan.

Bigarrena. - Ezen erakunde lankideak eskubideok babesteko eta ustiatzeko ekintzak egiteko konpromisoa hartzen duela.

Hirugarrena. - Ezen ikasle langileak eskubidea izango duela erakunde lankideak emaitza horien ustiapenaren bidez lortutako irabazien % X jasotzeko.

Eta hala jasota gera dadin sinatu dituzte bi aldeek, ale bitan, _____(e)n, 20__(e)ko _____aren ____ (e)an.

Erakunde lankidearen ordezkaria

Ikasle langilea